

AUTOEBALUAKETA I ATALA

Aukeratu Erantzun zuzena. Erantzun zuzen bakarra dago galdera bakoitzean.

- 1- Gaur egungo Osakidetzako errezeta publikoarekin:
 - a. Langileen ekarpen ekonomikoa %40 da eta pentsiodunena % 0.
 - b. Ekarpen maila desberdinak datu fiskalekin kalkulaturako TSI kodearen arabera dira
 - c. Lan instripuen ondoriozko tratamenduan daudenak, gaixotasun profesionalak dituztenek eta langabetuek ez dute ezer ordaintzen eta beste guztiek %40.
 - d. Farmaziliariek ezarritako ekarpen mailaren arabera da
 - e. Errezetan behar diren beste ontzi ager daitezke, pazientearen behararen eta erosotasunaren arabera

- 2- Errezeta da:
 - a. Formula magistrala
 - b. Dokumentu legala
 - c. Botiketako txosten administratiboa
 - d. Beti baliagarria farmazietan edozein motatako medikamentua eskuratzeko dokumentua
 - e. Osasun arloko dokumentu ez derrigorrezkoa

- 3- Osagai aktibozko aginduari buruz, aukeratu baieztapen zuzena:
 - a. Odontologoak definitu behar ditu osagai aktiboa, dosia eta era farmazeutikoa
 - b. Odontologoak ezin du inoiz generikoa ez den beste medikamenturik agindu
 - c. Hobe da izen komertzialaz preskribitzea osagai aktiboz baino
 - d. Formula magistralak bakarrik agindu daitezke osagai aktiboz
 - e. Odontologoak, legearen arabera, ezin du osagai aktibozko agindurik egin

- 4- Odontologoak paziente bati emandako amoxicilinaren ondorioz, honek erreakzio anafilaktikoa pairatzen du. Ze motako erreakzioa da hau?
 - a. A motako erreakzio kaltegarria
 - b. B motako erreakzio kaltegarria
 - c. C motako erreakzio kaltegarria
 - d. D motako erreakzio kaltegarria
 - e. E motako erreakzio kaltegarria



- 5- Ze farmakok eragin dezake hortzoiien gain-hazkuntza?
- a. Klorhexidina
 - b. Parazetamol
 - c. Fenitoina
 - d. Metronidazol
 - e. Propranolol
- 6- Osteonekrosia farmako honen ondorioz ager daiteke:
- a. Doxiziklina
 - b. Amoxizilina
 - c. Omeprazol
 - d. Alendronato
 - e. Ibuprofeno
- 7- Anestesiko lokala hodiuzkurtzailearekin, aho sabaian xiringatuz istripuz, ze erreakzio kaltegarri ager daiteke?
- a. Osteonekrosia
 - b. Aho-mukosaren pigmentazioa
 - c. Hiperplasia gingibala
 - d. Sialometaplasia nekrozatzailea
 - e. Xerostomia
- 8- Txartel horiri buruzko baieztapen zuzena aukeratu:
- a. Bereziki erreakzio larrien, ustekabekoen eta medikamendu berriekin erlazionatutako susmoen berriemate sistema bat da
 - b. Ospitalez kanpoko erreakzio kaltegarrien berri emate sistema da, eta ez du balio ospitalekako medikamentuen erreakzio kaltegarrien susmoak notifikatzeko, horretarako beste bide batzuk daude.
 - c. Intzidentzia txikiko erreakzio kaltegarriak ezin dira sistema honen bidez antzeman
 - d. Txostena betetzerakoan ezin da jarri pazientearen izena
 - e. Txartel horiaren bidez identifikatutako erreakzio kaltegarrien ondorioz medikamentu arduraduna merkatutik kanporatu behar da



- 9- Medikamentu berrien garapen aldiei buruzko baieztapen hauen artean, bakarra da zuzena, aukeratu ezazu:
- Boluntario osasuntsuek II aldian parte hartzen dute
 - I aldian farmakoa lehen aldiz administratzen zaio gizakiari, saio preklinikoetan lortutako emaitzak kontuan harturik
 - IV aldia gainditzen duenean, medikamentua merkaturatu eginte da
 - III aldian, lehen aldiz farmakoa gaixoetan frogatzen da
 - I aldian paziente kopuru handia behar da medikamentuaren informazio gehiena lortzeko
10. Ze ezaugarri dauka kasu eta kontrolen ikerketa obserbazionalak?
- Iraupen luzea dute, konplexuak eta garestiak dira
 - Partaide bakoitzarentzat informazio zehatza bildu daiteke
 - Aldi berean patologia desberdinak ikertu daitezke
 - Ikerketa prospektiboa da
 - Arriskua neurtzeko, arrisku erlatiboa (RR) kalkulatzeko da

